



## LANGILE MINUSBALIATUAK MUGAGABE KONTRATATZEKO EDO HORIEN ALDI BATERAKO LAN-KONTRATUAK MUGAGABE BIHURTZEKO PIZGARRI-ESKAERA

### ENPRESAREN DATUAK

IFK/IFZ/AIZ

EUROPAKO BATASUNA



EUROPAKO GIZARTE FONDOA

		IFZ/AIZ	KARGUA: (1)
JN./AND.		ENPRESAREN HELBIDEA	
ENPRESAREN IZENA			
HERRIALDEA	UDALERRIA	POSTA-KOD.	

### KOTIZAZIO-KONTUAREN DATUAK

ERREGIMENA	PROB. KOD.	ZENBAKIA	KONTROL-DIGITUA	JARDUERA EKONOMIKOA

### LANTOKIAREN DATUAK

HERRIALDEA	UDALERRIA

(1) Enpresan duen kargua: Enpresarioa, Administrataria, Kudeatzailea, etab.

BANKU-DATUAK, dagokionean, diru-laguntzaren banku-transferentzia jaso nahi duen bankukoak.

BANKU-ERAKUNDEA:	SUKURTSALA:
SUKURTSALAREN HELBIDEA:	KONTU-ZK.:
KONTUAREN IZENA (2):	

(2) Enplegu-emailearena izan behar du: Enpresa-izena edo banako izena, pertsona fisiko ala juridikoa den kontu.

Goian identifikatutako **ENPRESAK** honako langileari kontratu mugagabea egiteagatik edo horren aldi baterako kontratua mugagabe bihurtzegatik urtarrilaren 30eko 170/2004 E.D.ak (urtarrilaren 31ko E.B.O.) aldatutako maiatzaren 11ko 1451/83 Errege Dekretuak xedatutako pizgarriak **ESKATZEN** ditu:

### LANGILEAREN DATUAK

		JN./AND.	IFZ/AIZ	JAIOTEGUNA
G.S.KO AFILIAZIO-ZENBAKIA	IKASKETA-MAILA		NAZIONALITATEA	
BIZILEKUAREN UDALERRIA			BIZILEKUAREN HERRIALDEA	

Kontratututako langilearen eskaera honekin BATERA, AGIRI hauek aurkezten dira (1):

- Lan-kontratu mugagabea edo mugagabe bihurtzearen jakinarazpena; baita bihurtzen den aldi baterako kontratua eta horren luzapenak ere, badagokio.
- Nortasun Agiri Nazionala.
- Langilearen Gizarte Segurantzako alta-agiria, Gizarte Segurantzako Altxortegi Orokorrek behar bezala formalizatua.
- Zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean dagoela egiaztatzen duen agiria (2).

(Herria, eguna eta Enpresa eskatzailearen sinadura)

(1) Originala edo konpultsatutako fotokopiak

(2) Diru-laguntza eman ondoren eta kobratu aurretik aurkez daiteke.

## AITORTZEN DUTE

Langilea:

Minusbaliatua dela (1) .....k emandako ziurtagiriak egiaztatzen duenez.

Enpresaren ordezkariak:

- Zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean dagoela (2).
- Gizarte Alorreko Arau-hauste eta Zigorren Legearen Testu Bateratua onartzen duen abuztuaren 4ko 5/2000 Errege Dekretu Legegilearen arabera ez dagoela enplegu-programak aplikatzearen ondoriozko onurak izatetik salbuetsita.
- Hemen aurreikusitako onuren eta helburu berdina duten beste laguntza publiko batzuetatik lortutako baturak ezin du izan horiek eskuratzeko eskubidea ematen duen kontratuari dagokion urteko soldataren % 60 baino handiagoa.
- Eskatutako pizgarriak emanez gero, Enpresak honako konpromisoak hartzen dituela bere gain:
  - a) Kontratututako langilearen enpleguari gutxienez 3 urtez eustekoa.
  - b) Bidezko despidoa izanez gero, langilea beste langile minusbaliatu batez ordezkatzekoa eta horrelakoetan Gizarte Segurantzako kuota-hobariak baino ez lituzkeela izango.
  - c) Horiek emateko eskakizunak eta baldintzak eta urtarilaren 30eko 170/2004 E.D.ak (urtarilaren 31ko E.B.O.) aldatutako maiatzaren 11ko 1451/83 Errege Dekretuaren II. Kapituluan aurreikusitakoak bete ezean jasotako zenbatekoa itzuli egingo duela.
  - d) Enpresak kontratu mugagabea egiteagatik edo aipatutako aldi baterako kontratua kontratu mugagabe bihurtzeagatik honako onurak eskatzen ditu, baldin eta kontratua ondorengo arrazoi hauengatik onura horiek jasotzetik salbuetsita ez badago:
    - Kontratatu aurreko azken hogeita lau hiletan enpresa edo enpresa-talde horretan kontratu mugagabearekin lan egin duten langileak kontratatzea.
    - Aurreko paragrafoan ezarritakoa ere aplikatu egingo da, baldin eta langilea lanean aritu bada orain enpresa eskatzaileak ordeztan duen enpresa batean, Langileen Estatutuko Legearen 44. artikuluan ezarritakoari jarraiki.
    - Kontratua sinatu aurreko hiru hiletan lan-kontratu mugagabea amaitu duten langileak.

Lanaldi osoko kontratua denean, enpresak 3.907 euroko diru-laguntza eskatzen du, eta Gizarte Segurantzako enpresa-kuotaren hobaria, lan-istripuen eta -gaixotasunaren hobariak eta bilketa bateratuko kuotak barne, langilearen adinaren arabera (X jarri dagokionari).

- 45 urtetik behera:

- % 70, gizonezko langile minusbaliatua
- % 90, emakumezko langile minusbaliatua

- 45 urte edo gehiago:

- % 90, gizonezko langile minusbaliatua
- % 100, emakumezko langile minusbaliatua

Lanaldi partzialeko kontratua denean, enpresak .....(3) euroko diru-laguntza eskatzen du, eta Gizarte Segurantzako enpresa-kuotaren hobaria, lan-istripuen eta -gaixotasunaren hobaria eta bilketa bateratuko kuotak barne, langilearen adinaren arabera (X jarri dagokionari).

- 45 urtetik behera:

- % 70, gizonezko langile minusbaliatua
- % 90, emakumezko langile minusbaliatua

- 45 urte edo gehiago:

- % 90, gizonezko langile minusbaliatua
- % 100, emakumezko langile minusbaliatua

(Data eta sinadura)

(1) Ziurtagiri ofiziala eman duen Erakunde ofiziala aipatu.

(2) Zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean dagoela kobratu aurretik egiaztatu behar da, Ministerio Aginduetan ezarri bezala.

(3) Diru-laguntzaren zenbatekoa adierazi. Beherapena 3.906,57 euroko kopuruarekiko proportzionala izango da, hitzartutako lanaldiaren arabera.

### ENPLEGU-ZERBITZU PUBLIKOAREN ZUZENDARIAREN PROPOSAMENA:

A) EMATEKOA

Dagokiona eta eskura ditugun aurrekariak ikusirik, indarrean dagoen araudiko baldintzak betetzen direla EGIATZATZEN dut. Horregatik guztiagatik, Enplegu Zerbitzu Publikoaren Zuzendari Probintzialari eskatutako pizgarri hauek **EMATEA PROPOSATZEN DIOT**:

1.- Diru-laguntza: (1) ..... eurokoa.

2.- Gizarte Segurantzako enpresa-kuoten (2) .....(e)ko hobaria, lan-istripu eta gaixotasun profesionalenak eta baterako bilketaren kuotak barne.

B) EZ EMATEKOA

Halaber, dagokionean, ondorengo atalean adierazitako arrazoiak direla eta **EZ EMATEA** proposatzen dut.

(Data eta sinadura)

(1) Diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztu, kontratazioa edo bihurtzea lanaldi osokoa ala partzialekoa izango den kontu.

(2) Gizarte Segurantzaren kuotaren hobariaren zenbatekoa zehaztu.

### DIRU-LAGUNTZA EZ EMATEKO arrazoiak: